

B

BARREN

TOKIKOM

Herri musikaren harian

Arkaitz Miner eta Juan Arriola



ELGOIBAR
SAN FRANZISKO

Azken etxebizitzak
%4ko BEZarekin

Etxebizitzak
trastelekuarekin

150.000 €-tik aurrera
+ BEZ

Bukatutako eraikina
Sukalde ekipatua

Orain BAI!



Informa zaitez konpromisorik gabe

943 74 44 67



C/ San Francisco 51, bajo.
Elgoibar



Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

www.sukia.com



Justo Arriola

Ustelkerixan eta luxuan bizi dan kriminal talde bat millioka pertsona miserixara eta etsipenera eramaten ari dok. Troikak Greziako langilliak 78 orduko lanaldixak (13 ordu/6 egun) egittera behartu nahi jaittuk.

Eta gaiñera merke, Merkel: *Arbeit macht frei*. Lantegixetan esplotaziua eta langabezia masibua elkarren albu.

zia masibua elkarren albu.

Uztarritik (eta gezietatik) libratzeko antolatu eta borrokatu besterik ez jaukagu, herañegun bezela. Gaizkille hórrek eta euren bertako zerbitzari politikuak pikutara bialdu eta lapurtu jaittuen ondasunak birbanatzeko greba orokor mugagabia zela antolatu geinken pentsatzen hasteko ordua dalakuan nagok.

Honen harira, memoria historikua lantzeko ariketia proposatzen dixat. Zein enpresataz ari nauk?

1940an Poloniako hegoaldeko Kiertz herrixan, nazien errepresiotik hanka egin jua judu baten ehungintza-taillerra bereganatu jua bi anaia alemanek. Bigarren Mundu Gerran poloniar, soviatar eta frantziar esklabuak erabilli jaittuen III. Reich-arentzat armamentua ekoizteko.

“Lantegixetan esplotaziua eta langabezia masibua elkarren albu”

Auschwitz-Birkenau museoko ikerlarixa dan Jacek Lachendrok zera jio: 40.000 gizakiri dagozkixon 1.950 kilo (bai, 2 tona) ille ehun-biribilkixetan topatu juela bertan, alemanak alde egiñ eta gero.

Analisietan Zyklon-B estermínio eremueta erabillitako gas poiztsuaren arrastoak topatu jaittuen. Aipatu enpresak ukatu arren, langille ohiek gogoan juek illez betetako bi bagoiren etorrera. Auschwitz hiru ordutara dagok.



Arkaitz Irureta

Interneten aurkitutakuagaittik esango neuke enpresa horrek Elgoibarren jaukakela ekoizpen planta bat. Ikusi juat baita ere automobillen konponentiak ekoizten jaittuen enpresa hori diru-laguntzak galtzeko zorixan egon zuala Alemanian salaketa horren kontura, baiña azkenian ekonomia etikan gaiñetik jarri jua orduan ere.

Batek baiño gehixagok pentsauko jua berak lan egitten joken enpresaz ariko ginttuazela; izan ere, danok kakaz leporaño gauaz merkatuaren kapritxotan galduta.

Duintasuna eta etika falta dok enpresetan. Egitten danaren kontrola guztiz galduta dagok. Ez hori bakarrik, kontsumitzen dogunaren kontrola ere guztiz galduta!

“Duintasuna eta etika falta dok enpresetan”

Administraziuek atiak parez pare zabaltzen juezak multinazionaloi, ezberdintasun sozialen areagotzia, etekiña danan gaiñetik jartzen dabeneri. Zer jubilazio aterako ote juek politikarixok trukian?

Austria aldetik badatok beste korronte bat *Economía del Bien Común* izenarekin. Arrakastaren baloraziua ez dok zenbateko irabazixak euki dittuan, baizik eta zer aportazio egin dioken jendartiari. Horren arabera etiketa bat jartzen juek hire produktuan (gorritik berde- ra), eta zergak ere kolore horren arabera izaten dittuk.

Ez dok errezeta magikua, logikua baizik. Lanak sortu bihar jok aberastasuna, ez diruak. Lana duina eta etikua izan bihar dok, eta ingurumenaren mesedetan badok, hobe. Ez jakixat urrutira allegatuko dan, baiña hasteko ez zagok gaizki; ez dok uste?

I. URTEURRENA

KATALINA IRIONDO AGIRREGOMEZKORTA




2011ko irailaren 27an hil zen, 82 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 29, arratsaldeko 19:00etan Altzolako parrokian. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



ELGOIBARKO LEKUA



MENDAKO UDALA



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

ONUko auzotarren topaketa egin genuen joan zen zapatuan, eta primeran pasatu genuen. Eguna hain ondo antolatzen lagundu ziguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu: **BARREN** astekariari, *Diario Vasco* egunkariko Aitor Zabalarri, Udal Txistulari Taldeari, eta bereziki, Jose Inazio Sarasuari, eta Haritz dantza taldeko Ander Conderi eta Mikel Olai-zola bertsolariari. Mila esker, baita ere, Udalarri Herriko Antzokia lagatzeagatik eta Iñaki Raigosori, laguntza teknikoa eskaintzeagatik.

Antolatzaileak

Atez ateko zabor bilteta ez duzuela nahi?

Orintxe aukera. Elgoibarko Udalak Elgoibar osorako jarri du martxan zabor organikoa batzeko bosgarren edukiontzia sistema. Europatik behartuta gaude denok organikoa bereizita biltzera (ez da Diputazioaren edo Udalaren kapritxoa). Deba bailaran erraustegi bat (Elgoibarren adibidez), edo atez ateko sistema ezartzerik nahi ez badugu, hemen daukagu aukera; denok organikoa bereiztea da irtenbidea.

Organikoa egoki bereizten ez bada, atez atekoa edo erraustegia dira irtenbideak. Horregatik, organikoa bereizten ez duena ondo egiten dugunon kontra joango da. Zentzu horretan, Udalak oraindik asko egin dezakeela deritzogun arren, erronka herritarren teitlatuan dago. Beraz, bosgarren edukiontzia behar den bezala erabiltzera animatu nahi ditugu elgoibartar guztiak.

Informazio gehiago www.elgoibarren.net webguneko Okil Beltzen txokoan.

Okil Beltzak

Aski da!

Astehenean erakutsi genuen emakumeon erasoaren kontra erantzuten badakigula; zorionak. Erantzun baino ez dugu egin, ordea; arazoa konpontzeko daukagu. Denon lana da.

Argi daukagu emakumeon aurkako erasoak ez direla kasu isolatuak, ez direla ka-

sualitateak. Bizi dugun gizarte matxistak argitara irteteko daukan modu nazkagarri bat gehiago dira. Zentzu horretan, denon ardurada egoera hauen aurrean erantzun eta emakumeenganako erasorik onartzen ez dugula argi uztea.

Herriak erakutsi du mobilizazio-gaitasuna, baina zabaldutako zenbait diskurtso salatu beharra sentitzen dugu. Sare sozialetan hedatutako diskurtso xenofoboek lotsatu egin gaituzte; #elgoibargarbitu bezalako etiketek beste hainbeste. Bientzia sexista ez da etnia edo klase kontua eta kontrakoa zabalitzen diharduten horiek errealitatea distorsionatu baino ez dute egiten.

Salatutako eraso parranda giroan izateak ere ematen digu zer hausnartua. Baina, gau-giroan egunerokotasunean ematen diren botere harremanak birproduzitzen dira, eta garrantzitsua da denok horrekiko ardurak kolektibo hausnarkor bat izatea.

Era berean, ez genioke zapatuetan daoguen giroaren eztabaidari pisurik kendu nahi; guk geuk ere uste dugu badaukagula zer hausnartu eta zer aldatu. Baina neska gazte bat bortxatu izanaren kausa modura zapatuetako giroa hartuz gero, irakurketa simplegia egiten geundeke. Osterantzean, biolentzia matxistak sakonean daukan guztia ezkutetzen geundeke, eta horrekin berriz ere antzerako kasuak gertatzea baino ez genuke ahalbideratuko.

Eguneroko jardunean indarkeria sexista bere osotasunean ulertu eta bestelako gizarte eta harreman eredu batzuen alde lan egiteko konpromiso kolektiboa hartu beharra daukagu. Gaur indarkeriaren dimentsio bortitzenez hitz egiten dihardugun arren, eguneroko indarkeria sotilago hori baita horrelako gertakariak bideratu eta zilegi egiten dituen.

Elgoibarko Emakumeen Asanblada



Zaborra edukiontzietatik kanpo zegoen joan zen astean Sigman: "Sigmako bizilagunok ez gaude batere pozik gure auzoak duen trataerarekin. Joan zen astean zabor pila bat aurkitu genuen edukiontzietatik kanpo, eta hainbat egunez egon zen horrela. Kale garbitzailea ere gutxitan etortzen da gure auzora, eta eskertuko genuke sariago etortzea".



Pedro Migel Urruzuno kalean aparkalekuak kendu dituzte: "Herriko espaloiak handitzea eta berritzea garrantzitsua da, baina hobekuntza horiek ezin dira aparkalekuen kaltetan egin. Herriko erdigunean aparkatzea oso zaila da, eta ahal dela, aparkalekuak gehitzeko ahalegina egin beharko luke Udalak. Pedro Migel Urruzuno kalea dotore geratu da, baina aparkalekuak kendu egin dituzte. Espaloi estuago batekin ere moldatuko ginatkeelakoan nago".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barreri@elgoibarzarra.com 943 744 112

Nik maite dut euskara

CURSO 2012 • 2013 IKASTURTEA
Matrikula zabalik • Matricula abierta
UDAL EUSKALTEGIAK

DEBABE
Udal Euskaltegia

Kalebarren plaza 2
ELGOIBAR
943 742 731
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

2012-2013
IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Matrikula zabalik • Matricula abierta

Izena emateko epea irailaren 28ra arte
 Plazo de inscripción hasta el 28 de septiembre

♥ ♥ ♥ ♥ ♥ ♥ ♥

Aurrez aurrekoak, 2, 3 edo 4 egun astean
 Autoikaskuntza internet bidez

Ikastaro bereziak
 Enpresak
 AISA (Etorkinak)
 Merkatariak eta ostalaritza

Azterketetarako prestakuntza
 Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)
 HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak
 EGA

16 urtetik gorakoentzat
 DIRU-LAGUNTZAK ETA BEKAK

♥ ♥ ♥ ♥ ♥ ♥ ♥

Ordutegia:
 09:00 - 13:00
 15:30 - 19:30

Euskal Herriko Unibertsitatearen eskaintza sartu dute IMHren Txandakako Ingeniaritza

Prozesu eta Produktuen Berrikuntza-Ingeniaritza gradua gehitu dute ikasturte berrirako

Txandakako Ingeniaritza Euskal Herriko Unibertsitatearen eskaintza sartzea lortu ondoren, beste gradu bat eskainiko du IMHK ikasturte honetan: Prozesu eta Produktuen Berrikuntza-Ingeniaritza. Gradu horrek orain arte eskainitako txandakako prestakuntza sistema pedagogikoa mantenduko du, eta unibertsitate sistemaren graduen betebeharrak egokitu da. Joan zen ostiralean egin zuten ikasturte akademikoaren inaugurazio ofiziala, eta egun “berezia” eta “historikoa” zela nabarmendu zuten ekitaldian parte hartu zuten agintari eta hezkuntza alorreko ordezkariak.

Txandakako irakaskuntza sistema ezartzen aitzindaria izan zen IMH orain hamazazpi urte. Prestakuntza akademikoaren eta enpresan ematen den kontratudun



lanaren arteko alternantzia oinarritutako ikasketak dira, eta urte hauetan guztietan izan duten eragin sozial eta ekonomikoa handia izan da. IMHK orain arte egindako lanaz hitz onak izan zituen Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak asteleheneko eki-

taldian: “Europako gizarte aurreratuenetan, Alemanian zein Frantzian, hedatutako irakaskuntza modua da, eta emaitza onak ematen ari da, gainera. IMHK eredia bertakotu du, eta hamasei urteko esperientziaren bermea eskaintzen dute orain”.

Elkarretaratze jendetsua, ustezko bortxaketa kasu bat salatzeko



Elgoibarko Emakumeen Asanbladak deituta, elkarretaratze jendetsua egin zen astelehenean Elgoibarren, ustezko bortxaketa kasu bat salatzeko. Adingabea da salaketa jarri duen neska, eta salatu du larunbat iluntzean egin ziotela eraso. Ondoren, lagunekin harremanetan jarri zen, eta bortxatu egin zutela azaldu zien. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak baieztatu du salaketa bat jaso dutela, baina ikerketaren inguruko xehetasunik ez du eman. Elgoibarko Udalak, berriz, adierazi du eskura dituen baliabide guztiak eskaini dizkiola neskaren familiari, eta herrian zabaldu diren zurrumurruei kasurik ez egiteko eskatu die herritarrei. Herrizaingo Sailaren bertsioaren zain egoteko deia egin du horren harira, eta sare sozialak zentzuz erabiltzeko eskatu du, sare sozialen kontrolik gabeko erabilerak kalte konponezinak sor ditzakeela ohartarazita. Bai alkatetzak eta bai Elgoibarko Emakumeen Asanbladak emakumeen kontrako eraso guztiak gaitzesteko eskatu dute.

Ekitaldia 'Dendak bizirik' ekimena

Azken hamaika urtean egin izan den Txankakuaren feriaren ordez, Dendak bizirik ekimena antolatu du aurten Txankakua Elgoibarko dendarien ekimenak urriaren 4, 5 eta 6 egunetarako. Urriaren 4an, eguenean, pintxo-poteoa antolatu dute, Ostalarien Elkartearekin elkarlanean. Barixakuan, berriz, 22:30ak arte egongo dira zabalik Txankakua elkarteko bazkide diren dendak. Herriko dendetan erostea bultzatzeko, baina, hainbat ekintzarekin jantzi dute egun hori. Hala, 19:00etan, kalejira egingo da trikitilariekin, eta 19:00etatik 22:00ak bitartean batuka talde bat ibiliko da kalez kalez. 20:15ean, berriz, Biraka dantza ikuskizuna ikusteko aukera izango da Kalegoen plazan. Dantzariak erosketa egun bat antzeztuko dute. Eguna bukatzeko, 23:00etan, Zuhaitz Gurrutxaga elgoibartarraren Vanpopel taldeak kontzertua eskainiko du Lekuederren. Zapaturako, hilaren 6rako, Stock feria antolatu dute Lekuederren, 10:30etik 14:30era. Aurreko denboraldietako erropak jarriko dituzte salgai, prezio merkeagoan. Pintxo poteoa ere izango da, eta gauean, 23:00etatik aurrera, DJ elgoibartar baten saioa izango da Maalan.

Feria Berrikuntza: entsalada lehiaketa

Bihar egingo dute hilabeteko azken zapatuko feria, Udalak eta Debemenek antolatuta, eta hilabete honetako berrikuntza entsalada lehiaketa izango da. Gaztelekuko hogeitalek hartuko dute lehiaketan. Azokan bertan erositako produktuak erabili beharko dituzte entsaladak prestatzeko, eta irabazleek eskolarako materiala jasoko dute sarritzat. Bestalde, ganadu erakusketa egingo dute Aita Agirre plazan, Kale Kantariak irtingo dira 12:00etan, eta Lagun Taldea txirindulari taldeak txerri pintxoak salduko ditu txosnan.

Asteko irudia Greba

Greba eguna deitu zuten asteazkenerako ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE, Hiru, CGT eta CNT sindikatuek, eta haien arabera, "aspaldiko jarraipen handiena" izan zuen. Jaur-laritzaren ustez, ordea, lanuztea ez zen "hain orokorra" izan, eta Confebask patronalaren ustez azken urteotako deialdien artetik jarraipen «eskasena» izan duena izan zen eguaz-tenekoa. Elgoibarko erdiguneko taberna eta saltokiak, bakar batzuk salbu, itxita egon ziren, eta industriagunean ere ohi baino mugimendu txikiagoa nabari zen. Mendaron, aldiz, normaltasuna ia erabatekoa zen saltoki eta tabernei dagokienean. Industriagunean, aldiz, besteetan baino auto gutxiago ikus zitezkeen, eta normalean baino mugimendu gutxiago zegoela igartzen zen. Hezkuntzan, gutxieneko zerbitzuak eskaini zituzten.



Hauteskunde egunean mahaietan izango direnen zerrendak atera dituzte

Hauteskundeen Araubideari jarraituz, urriaren 21erako deitu dituzten Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan hauteslekuetako mahaietan egongo direnak aukeratu dituzte, zozketaz, Mendaron eta Elgoibarren. Mendaron zapatuan egin zuten, eta Elgoibarren, astelehenean. Zerrenda horiek ikusgai dituzue www.elgoibarren.net webgunean.

Gazteen intereseko informazioa webgune batean bildu du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Haurrentzako eta Gazteentzako Informazio Zerbitzua aurkeztu du Elgoibarko Udalak (www.elgoibarkogazteinformazioa.info). Atari dinamikoa da, gazteen beharren arabera antolatutakoa. Sei orduko eguneratuko dute ataria, eta Elgoibarko bertako nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaur-laritzak zabalitzen duten informazio oro jasotzeaz gain, nahi beste galdera, proposamen eta informazio eskaera egiteko aukera izango dute gazteek. Webguneko informazioa sare sozialen bidez ere jaso ahal izango dute erabiltzaileek. Era berean, Elgoibarko Udalaren webgunetik ere (www.elgoibar.org) egongo da atari berri horretara sartzeko aukera.

Foru Aldundiak egitekoak dituen fumigatzeen kontra egin du Okil Beltzak taldeak

Gipuzkoako Foru Aldundiak hazi berri duen fumigatze kanpaina txarretsi du Okil Beltzak taldeak. Fumigatzeetan Foray 48B plagizida erabiltzen dutela adierazi dute, eta berez ekologikotan erabiltzen den tratamendua bada ere, kuantitate handietan eta airez zabaltzeak kalte handiak eragiten dituela ohartarazi dute. "Kanadan gelditu egin dituzte fumigatzeak", gehitu dute horren harira.

JUAN ARRIOLA

MUSIKARIA

‘Hariari tiraka’ diskoa kaleratu dute Juan Arriola eta Arkaitz Miner biolin-joleek, herri musikaren eta biolinaren aldeko aldarritzat. Mendararra da Arriola, eta urteak daramatza herri musika lantzen. 1996an Alboka taldean sartu zen, Txomin Artolaren orde, eta urteak egin zituen han. Hainbat diskotan kolaboratu du, musika irakaslea da gaur egun, eta biolin-jole handien artean ageri da bere izena.



“Biolinaren hotsa errekuperatu nahi izan dugu”

Bi biolin arteko jokoa da aurkeztu duzue-na. Nolatan animatu zineten?

Herri musika gustuko genuelako biok ere. Ni neu biolina jotzen hasi banintz herri musika egiten zuen talde irlandar bat ezagutu nuelako izan zen. Biok elkartu ginenean ikusi genuen gauza polita egin zitekeela bi biolinek ematen duten jokotik. Hala erabaki genuen diskoa sortzea. Eta gero, jakinda Juan Mari Beltranek berak diskoaren atarikoan esaten duen bezala, biolina izan dela XVI. mendetik XX. mende hasiera arte gure herri musikan modu nabarmenean erabili izan diren soinu tresnetako bat, pausoa ematea erabaki genuen. Gure helburua ez da izan tradizio hura berreskuratzea, baina bai biolinaren edo

arrabitaren hotsa errekuperatzea euskal musikarako.

Zerk edo nork bultzatu zintuzteten diskoa kaleratzera?

Alasdair Fraserrek zerikusi handia izan zuen. Fraser gaur egun Californian bizi den biolin-jole eskoziarra da, punta-puntakoa. *El último mohicano* filmeko soinu banda berea da, eta *Titanic* eta beste hainbat filmetan ere parte hartu du. Fraserrek *Crisol de cuerda* izeneko ikastaroa zuzentzen du urtero. Herri musika lantzen da han, partiturarik gabe. Arrakasta handiko ikastaroa da, eta Arkaitz eta biok joan izan gara, euskal musika erakustera. Horrek elkartu gintuen, eta han erabaki genuen zerbait egitea, hutsunea ere handia zelako.

Hutsune bat betetzeko bokazioz sortu duzue hortaz diskoa?

Neurri batean bai. Izan ere, ez dugu aurkitu lehengoek egiten zutenaren gaineko ezer. Ez grabaziorik, ez partiturarik, ez ezer. Dokumentazio zaharrea topatu dugun apurra Juan Mari Beltranek berak bildutakoa da, eta tartean bada 60 bat biolin-jole edo arrabitajoleren zerrenda bat. 1500. urtetik XX. mende hasiera artekoak dira denak, eta jasota egoteko ez da kopuru txikia ere, horrek esan nahi duelako askoz gehiago izan zirela. Hau da, bazela garai batean tradizio bat arrabitaren bueltan.

Bitxia egin zait diskoa. Ez nuen biolina arinarin batekin edota zortziko batekin lotzen. Ez

dakit nola esan. Festarako baino gehiago areto itxietarako instrumentutzat neukan.

Garai batean bazen festarako ere. Juan Mari Beltranek baditu Lasarteko eta Hernaniko erromerietan ateratako argazkiak, eta haietan beti agertzen dira biolin-jole bat, txirula-jole bat eta gitarra-jole bat. Egia da orduan ez zela gaur beste aukera egongo dantzarako eta festarako, baina... Hala ere, bai, biolinaren hotsa nahikoa suabea da, eta beharbada horregatik desagertuz joan da herri musikaren mundutik. Akordeoia eta trikitiak beste aukera batzuk eskaintzen zituzten aire libererako, eta nik uste dut lekua jan ziotela biolinari. Arrabita edo biolinaren hotsa hain da melodikoa eta fina, apur bat aparterago gelditu zela. Galizian ere gertatu da hori. Gaitaren hotsak isildu egin du biolina, bolumen handiagoa duelako edo.

Zer irizpideren arabera egin duzue kantuen aukeraketa?

Errepertorio ezagunaren bila joan gara. Lehenengo eta bigarren kantuak izan ezik, guk geuk sortutakoak direlako, gainerako guztiak ezagunak dira oso. Hemen bertako doinuak erabili nahi izan ditugu, diskoa ez zedin oso hotza gertatu, eta jendeak ikusi zezan herri musika jo daitekeela biolinarekin.

Zuzenekoak emateko asmorik bai?

Ahaleginduko gara, baina oso zaila da, eta are gehiago krisi garai honetan. Gure herri honetan, gainera, kultura ez da behar bat. Beste herri batzuetan indar handiagok laguntzen dute kultura behar bat dela sinisten dutelako, baina gurean kultura kapritxoa da. Jakina, norbaitek interesa agertzen badu, gu geu prest gaude zuzenekoak emateko. Mendaron ziurrenik emango dugu.

“Gure herri honetan kultura ez da behar bat. Gurean kultura kapritxoa da”

Puntako kolaboratzaileak batu dituzue.

Bai. Gutxi, baina punta-puntakoak, bai: Xabier Berasaluze *Leturia* panderoan, Alasdair Fraser eta Natalie Haas arrabita eta biolin-

txeloan eta Amaïur Cajaraville kontrabaxuan. Hala ere, oinarrian bi biolin izatea nahi genuen, eta hori dago. Panderoa eta Quebeceen egiten den zapata jokoa ere sartu ditugu. Panderoarekin zalantza genuen ondo uztartuko ote zen biolinarekin, baina bai, oso ondo gelditu da; baita zapata jokoa bera ere; asko jantzi dute biolinaren hotsa.

Hutsune bat bete nahi izan duzue. Hutsunea handia da, baina, eta materiala ugaria. Beste disko batekin hasteko gogorik bai?

Guregatik balitz bihar bertan hasiko ginatete bigarrenarekin, baina hau bera ere autoprodukzioa izan da, eta dirutza handia da. Eta gaur ez da diskorik saltzen, gainera. Guk badakigu dirua galdu dugula honekin. Gaur egun hala daude gauzak, eta hau kapritxo bat izan da. Ez dakigu zer erantzun izan dezakeen ere. Arkaitzek [Miner] esaten zidan *friky* bat sentitzen zela eta ez zekiela norbaitek kasurik egingo zigun ere. Eta badago horretatik ere. Euskal Herrian esaten dugu bertakoaren oso zaleak garela, baina ez dakit hori hala den ere.

Zer esan nahi duzu?

Hau dela hemen bertako musika, hau dela gure oinarriko kultura, baina ez dakidala zenbatek eskertzen duten halako musika. Beste edozein musika mota gehiago kontsumitzen da hemen. Irratian zer tarte eskaintzen diote?. Frantzian, esaterako, behartuta daude ehuneko jakin bat jartzera, eta supermerkatuetan-eta sarri entzuten da han bertako musika. Hemen ez dago halakorik.

Biolina eta arrabita bereiztu egiten dituzu?

Herrialde batzuetan, Irlandan esaterako, oso garbi bereizten dituzte, bai. Musika klasikoaz ari direnean, biolin hitza erabiltzen dute, eta herri musikaz ari direnean, *fiddle* esate diote instrumentu horri. Eta hemen ere garai batean bereizten ziren biolina eta arrabita.

Frikizat duzu zure burua?

Musikazalea naiz ni, *un enamorado de la música* esaten dena. Gaztetan Maisutza ikasi nuen Elgoibarren, eta neure kasa hasi nintzen gitarra jotzen. Baina lortu nuen biolin bat, eta gauzak nola diren, biolina gitarra bezala afinatu nuela. Eta halaxe pasatu nituen hiru urte, neure kasa ikasten. Soldaduskatik bueltan eman nuen izena kontserbatorioan, Donostian, 22 urterekin. Batera hasi nintzen solfeo eta biolina ikasten. Jakina, ez nintzen musikari izateko hasi kontserbatorioan, afizioa nuelako baizik. Gustuko partitura batzuk

jotzeko gai izatea nahi nuen, besterik gabe. **Musika irakasle zara orain; biolina irakasten duzu Mutrikun, Mendaron eta Sorraluzen. Lehen aitatu duzu gabezia bat ere badagoela gaur egun: gazteek ez dutela euskal musika ezagutzen. Irakasle zaren neurrian, erantzukizunik sentitzen duzu?**

Bai. Ez dago ezer araututa, eta musika irakasleok libre gara zer irakatsi erabakitzeko, baina berriro diot: ez dakit musika mota honek zenbateko estimazioa duen. Baina, bai, nik uste dut lan bat egin beharra dagoela. Irlandan-eta, musika tipo honek badu entzute bat, estimazio bat, eta hango musikari gazteek badituzte ereduak. Zergatik daude bestela Irlandan horrenbeste biolin-jole eta horren onak?. Galizian ere bazegoen biolin jole itsu bat eta hari egindako grabazioak urrea balira moduan dituzte gordeta. Hemen ere arrabita-jole asko ziren, tartean itsuak asko, baina ez zaigu haien ezer iritsi.

“Isilik egotea eskatzen du biolinak, eta hori ere traba bat da gaur egun”

Ez da gauza bera gertatu herri musikako beste instrumentu batzuekin.

Gizartea modaren arabera mugitzen da, eta modan jartzen baldin bada *ahalegina* egiten du hara gerturatzen, baina bestela ez. Trikitiarekin gertatu zen hori hemen. Sortu ziren pare bat talde, Maixa eta Itziar eta Alaitz eta Maider esaterako, eta sekulako *boom*-a sortu zen. Jende denak trikitia ikasi nahi zuen, eredu horiek sortu zirelako.

Trikiti doinuak entzuteko, hala ere, ez zen aparteko “esfortzurik” egin behar. Taberna guztietan jartzen zuten. Biolina, aldiz...

Bai, hala da. Biolina entzuteraren areto batera joan behar zara, sarrera ordainduta askotan. Eta hori baino gehiago dena. Isilik egotea eskatzen du biolinak, eta hori ere traba bat bada gaur egun, isiltasuna garesti dagoelako.

Erretratu zaharra



1987

Aste honetako erretratu zaharra Itziar Albarranek ekarri du BARRENERA. 14-15 urteko neska taldea ageri da argazkian, 1987. urtean. Neska horiek 40 urte egingo dituzte aurten, eta eurak esandakoaren arabera, garai hartan bezain politak jarraitzen dute. Ikus ditzagun zeintzuk diren neska gazte horiek.

Goiko ilaran ezkerretik eskumara: Agurtzane Unamuno, Olaiz Txurruka, Maite Uribe eta Nora Lodoso. **Erdiko ilaran:** Brigida Iriondo, Nerea Machado, Monica Andonegi, Josune Leniz, Ainhoa Urbieta, Itziar Ibabe, Cristina Alvarez eta Raquel Arriola. **Behoko ilaran:** Miren Moreno, Ane San Martin, Marta Zubiaurre, Itziar Albarran, Lorea Rementeria, Itziar Lasuen eta Miren Estarta.

Soluzioak zure esku

EKITALDIA
Kalegoen PLAZAN
18:30etan

ostirala **5** URRIAK

ehbildu

www.ehbildu.net

Uztailean eta abuztuan...

JAIOTAKOAK



Mikel Faccilongo Iriondo
Uztailak 5
Stefano eta Brigida



Unai eta Uxue Jimenez Perez
Uztailak 13
Jon Luis eta Maria



Nora Salvatierra Alkorta
Uztailak 25
Xabi eta Maria



Oier Alonso Rodriguez
Abuztuak 13
Roberto eta Leila




Paola Morales Ruiz
Abuztuak 12
Victor eta Ana



Aratz Tellechea Juaristi
Abuztuak 19
Santos eta Ainhoa



Alex Martin Ortega
Abuztuak 25
Gregorio eta Rosa



Danel Bereziartua Lasuen
Abuztuak 30
Manex eta Nagore



Sara Urresti Osoro
Abuztuak 29
Asier eta Alaitz



Meriem El Hachmi
Uztailak 6
Hassan Rachida



Nahia Etxaniz Arano
Uztailak 21
Jon eta Izaro




Patricia Salguero Cortes
Abuztuak 9
Miguel eta Mercedes




Yahya Tallih
Abuztuak 9
Farid eta Radia




Javier Alonso Bilbatua
Abuztuak 13
Jose Antonio eta Saray



Lohitzune Del Barrio Martinez
Abuztuak 20
Aratz eta Aintzane



Unax Santos Otegi
Abuztuak 28
Imanol eta Noemi



Haizea Alkiza Rodriguez
Abuztuak 31
Andres eta Sonia

HILDAKOAK

- Juana Arrieta Etxabe • 90 urte • Uztailak 1
- Felisa Zubiaurre Bilbao • 83 urte • Uztailak 1
- Alfonso Arrillaga Dueñas • 56 urte • Uztailak 4
- Juana Juaristi Arostegi • 78 urte • Uztailak 19
- Iker Argarate Untzilla • 81 urte • Uztailak 26
- Felix Ayesta Albizu • 81 urte • Uztailak 29
- Maritxu Osoro Gurrutxaga • 87 urte • Uztailak 29
- Pedro Merino Garcia • 79 urte • Abuztuak 4
- Ana Etxeberria Agirregomezkorta • 94 urte • Abuztuak 5
- Miguel Azpiri Agirrebefia • 83 urte • Abuztuak 6
- Francisco Garcia Gomez • 83 urte • Abuztuak 7
- Agustina Arrizabalaga Eibar • 99 urte • Abuztuak 12
- Bibiana Garmendia Lasa • 92 urte • Abuztuak 15
- Magdalena Etzaniz Arrizabalaga • 92 urte • Abuztuak 17
- Juan Arozena Arrizabalaga • 90 urte • Abuztuak 17

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA
eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK
NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak
Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

EZKONDUTAKOAK

- Miguel Ruiz Deza eta Igone Igartua Arriola Uztailak 2
- Ander Zubia Mujika eta Ainhoa Ruiz de Gauna Etxaniz Uztailak 7
- Asier Mujika Leiaristi eta Ane Agirregomezkorta Gorostiza Uztailak 14
- Oier Ramos Miguel eta Mireia Rico Mateos Uztailak 21
- Oscar Regueiro Lago eta Nerea Gerrikaetxeberrria Sarasua Uztailak 26

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 744 112** telefonora edo bidalie-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora. Argazkia jartzeagatik **3 €** ordaindu beharko dituzte Elgoibarko Izarrako bazkideek, eta gainerakoek, **4 €**.

‘Nafarroa arragoa!’ programa aurkeztu dute herriko hainbat eragilek elkarlanean

Kultur egitarau zabala prestatu dute Nafarroako Konkistaren 500. urteurrenaren harira



Kultur Etxean egin zuten aurkezpena martitzenean.

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak, Elgoibarko Udalak, Morkaikok, Ongarik eta Gazte Asanbladak *Nafarroa arragoa!* programa aurkeztu zuten martitzenean, elkarlanean. Gotzon Garate idazle eta euskaltzale elgoibartarra 2008ko urrian hil zen, eta ordutik, urria elgoibartarrentzat “berezia” izan dela azaldu zuen Imanol Larrañaga Elgoibarko Izarrako arduradunak pentsaurrekoan. Azken urteotan hitzaldi zikloak eta antzerako ekitaldiak antolatu izan dituzte Udalak eta Elgoibarko Izarrak Gotzon Garateren heriotzaren harira, baina aurten herriko beste eragile batzuekin jardun dute elkarlean.

Egitarau zabala

Nafarroara begira jarri dira aurten antolatzaileak, eta elgoibartarrek Nafarroa hobeto ezagutzeko egitaraua osatu dute.

500 urte bete dira Gaztelak Nafarroa konkistatu zuenetik, eta egitaraua hori aitzaki hartuta prestatu dutela azaldu zuen Ane Beitia Udaleko Euskara zinegotziak. Besteak beste, bi hitzaldi, zinea, txango bat, eta mendi-ibilaldi bat izango dira, Elgoibartik Nafarroara dagoen distantzia txikitzeko helburuarekin.

Hitzaldi batekin hasiko dira ekitaldiak, urriaren 3an. Nafarroako konkistaren gainean hitz egingo du Joseba Asiron historialari nafarrak. Urriaren 10ean, berriz, Euskara Nafarroan hitzaldia emango du Kike Diaz de Ultzurunek. Hitzaldi biak Kultur Etxean izango dira, 19:00etan.

Urriaren 18an Gartxot pelikula ikusteko aukera izango da, eta pelikularen gainean jarduteko, Asisko Urmeneta etorriko da Herriko Antzokira. Goizean ikasleentzako saioa eskainiko dute, eta 21:30ean hasiko

da gainerako herritarrentzako emanaldia.

Urriaren 20rako txangoa eta kantu-bertso afaria prestatu dituzte. Eguerdian, Leitzara egingo dute irteera, Iñaki Perurenaren etxera. Iluntzean, berriz, bertso-kantu afari nafarra izango da Gaztetxean, Uxue Alberdi eta Ander Lizarralderekin.

Azkenik, azaroaren 1etik 4rako jai-zubian Orreagatik Belaguarainoko mendi ibilaldia egingo dute. Informazio gehiago www.morkaiko.net webgunean.

Ekitaldi horietako batzuetan parte hartzeko aurrez izena eman behar da. www.elgoibarkoizarra.com helbidean dituzue horretarako argibideak.



‘Emadazu eskua’ dokumentalerako diru bilketa kanpaina hasi dute

Ezintasun neurologikoa duen neska bat da protagonista

Ezintasun neurologikoa duen neska baten istorioa jasoko du Zesatenjuenaz ekoiztetxeak *Emadazu Eskua* dokumentalean, eta egitasmoa laguntzeko diru-bilketa kanpaina hasi dute. 45 eguneko kanpaina izango da, eta hamar mila euro lortu nahi dituzte eragileek. Laguntzeko aukera desberdinak eskaini dituzte, eta trukean laguntzaile horiek dokumentaleko kredituetan agertuko dira. Kanpainari buruzko informazioa esteka honetan aurkituko duzue: <http://emadazueskua.blogspot.com>

13 urteko neska protagonista

Maier Gurrutxaga elgoibartarraren alaba Itxaso izango da dokumentaleko protagonista. 13 urte ditu Itxasok, eta lau hilabete zituela gaixotasun neurologikoa atzeman zioten medikuek. Urte hasieran jarri zuten martxan Emadazu Eskua egitasmoa Zesatenjuenaz ekoiztetxearekin batera, euren egoera azaleratu eta antzeko egoe-



ran daudenei laguntzeko. Lorea Perez de Albeniz elgoibartarra da ekoiztetzeko kide-etako bat. Proiektu honetan sinistuta daude, eta uste dute enpatia bidez edonor egin daitekeela solidario. Itxasne, animazioko pertsonaiak, poz eta umore puntu batekin islatuko du mundu hori, eta unibertso zabal hori ulertarazten lagunduko du. Dokumentalaren helburua pertsona horiek bizi duten errealitatea kontatzea eta aurrera egiteko duten gaitasuna ezagutzera ematea da.

Emilia Nogalesen margo erakusketa jarriko dute ikusgai urriaren 5ean, Kultur Etxean



Emilia Nogales elgoibartarraren margo erakusketa jarriko dute ikusgai Kultur Etxean datorren barixakuan. Bi urte inguru pasatu dira azkenekoz Elgoibarren erakusketa egin zuenetik, eta azken bi urteotako lana erakutsiko du Nogalesek. 30 bat koadro inguru jarriko ditu, gehienak berriak, baina zaharragoak ere erakutsiko ditu. Betiko estiloari eutsi dio Nogalesek oraingoan ere, baina material eta kolore berriak erabili ditu. Lehen erabiltzen ez zituen urdin tonuak ere aurkituko ditu ikusleak. Astelehenetik zapatara egongo da zabalik erakusketa, 18:30etik 20:30era.

Euskal dantzen ikastaroa

Haritz dantza taldeak eta Musika Eskolak euskal dantzen ikastaroa antolatuko dute. Urritik abendura izango dira eskolak eta bi talde egongo dira aukerarik: Ibilikoak eta hasi berriak. Izena emateko epea urriaren 5ean amaituko da. Informazio gehiago 943 742 145 telefonon.

San Migel jaiak asteburuan

Irailaren 29an San Migel Eguna dela eta, auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburuan Aiastian. 19:00etan hasiko dira jaiak gaur, eta domekara bitartean hainbat ekitaldi izango dira. Bihar, esate baterako, arraza libreko artzai txakur txapelketa jokatu dute, eta gauean Borja Uzuriagaren omenezko dantza saioa eskainiko du Haritz Dantza Taldeak. Domekan, korrika igoera egingo dute eguerdian eta idi demak izango dira arratsaldean. Egitarau osoa agendan.

Uxue Alberdi, Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa

Euskal kulturako sortzaile eta eragile ezagun ugarik hartuko dute parte Mondragon Unibertsitateak antolatutako Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa. Han izango da Uxue Alberdi idazle eta bertsolari elgoibartarra ere, eta Euskal Kulturgintzaren Ekosistemak saioa eskainiko du. Matrikulazio epea irailaren 30ean amaituko da. Informazio gehiagorako 943 714 157 telefonora deitu daiteke.

Emakumeentzako Jabetze Eskola

Emakumeentzako Jabetze Eskolaren barruan hainbat ikastaro antolatu ditu Udalak, emakumearen parte-hatze sozial eta politikoa sustatzeko. Urriaren 6an izango da lehenenegoa: Barreterapia. Era berean, *coaching* ikastaroa hasiko da urriaren 9an. Azaro eta abendua bitartean, bestalde, autodefentsa, ‘hiltzen duten amodioak’, eta autoaren mekanika tailerrak emango dituzte. Informazio gehiagorako 943 744 132 (Nora Ramon).

238 lagunek egin zuten korrika Gau Krosean

Mintxeta Atletismo Taldeak antolatuta, Gau Krosa jokatu zen joan zen zapatuan Elgoibarren. Guztira 238 lagunek hartu zuten parte. Antolatzailerek aurreikuspen hoberenak bete zituzten eta prest zeuzkaten dortsal guztiak banatu zituzten. David Garcia durangarrak irabazi zuen proba gizonezkoetan, 24:10 denborarekin, eta emakumezkoetan, Ainhoa Sanz urretxuarra izan zen azkarrena (28:36). Argazki gehiago, www.elgoibarren.net webgunean.



San Migel jaien barruan, Aiasiako Igoera jokatu da domekan

12:00etan irtengo dira korrikalariak Kalegoen plazatik

Aiasiako Igoera jokatu da domekan, hilaren 30ean. 12:00etan abiatuko dira korrikalariak Kalegoen plazatik, eta Murkaikupe frontoirainoko ibilbidea osatu beharko dute korrika. Bost kilometro inguru, aldatz gora. Interesatuak lasterketa hasi aurretik eman beharko dute izena, Kalegoen plazan bertan horretarako jarriko duten mahaian.

Iaz, Igon Manzidor debarrek irabazi zuen gizonetakoan (20:45), eta Nerea Amilibia aiarrak, emakumeetakoan (24:28). Laugarrenez gailendu zen Amilibia Idortoben. Elgoibartarren artean, berriz, Jon Revert (23:03) eta Ainhoa Lendinez (25:02) izan ziren azkarrenak.



lazko irabazlea: Igon Manzidor debarra

Iñigo Lariz elgoibartarrak laugarren egin du Uharte Arakil-Beriaingo kilometro bertikalean




Sasoiko dago Iñigo Lariz. Joan zen domekan laugarren sailkatu zen Uharte Arakil-Beriaingo kilometro bertikalean, Ionut Zinca, David Garcia Castan eta Didier Zagoren atzetik. Euskal Koparako proba puntuagarria da Uharte Arakilgo kilometro bertikala, eta horrenbestez, punta-puntako korrikalarietako parte hartu zuten. Bost kilometroko ibilbidean 1.023 metroko desnibela gaudituz behar izan zuten antxixikariekin, eta Larizek aitortu du pozik amaitu zuela, entrenamenduetako "sentsazio onak" berretsi zituelako. Domekakoarekin, lasterketa bertikalean Euskal Kopako lider jarraitzen du elgoibartarrak. Urriaren 6an jokatu da azkeneko proba: Anbotoko Kilometro Bertikala.

Zuberoara irteera antolatu du Morkaikok

Morkaiko mendizale elkarteak Zuberoara irteera antolatu du, urriaren 12tik 14rako. Mendiko bizikletaz edo oinez egiteko ibilbideak prestatu dituzte antolatzaileek. Maule ondoan dagoen Château-Libarrenx-eko jauregian hartuko dute ostatu. Morkaikoko bazkideek 75 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 85 euro. Izenematea Morkaikok Errosario kalean duen egoitzan egin daiteke astelehen eta eguenean (19:00-20:00), edo bestela, morkaiko@morkaiko.net helbidera idatzita. Informazio gehiago www.morkaiko.net webgunean.

Txapel banarekin itzuli dira Maite Maiora eta losu Juaristi Sorginen Lasterketatik

Anbotoko ingurunean jokatu zuten domekan Sorginen Lasterketa. Partaideek 25,6 kilometroko proba luzea edo hamabost kilometroko ibilbide laburra izan zituzten aukeran, eta bietan gure ordezkariak nagusitu ziren. Maite Maiora mendarorak 2 ordu, 27 minutu eta 8 segundoan amaitu zuen proba luzea, eta berak jantzi zuen txapela emakumeetakoan. Ibilbide laburrean, bestalde, losu Juaristi elgoibartarra izan zen bizkorrena, 1:33:20 denborarekin.



ESKERTZA

DOLORES CABALLERO FLORES

2012ko irailaren 18an hil zen, 86 urte zituela.

"Ama, joan zaren arren, beti izango zara gure bihotzetan."

Zure alabek, bilobek eta birbilobek



LANA

ESKAERA

- Neska gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **661 642 764**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. ☎ **699 232 823**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. ☎ **636 247 429**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **664 009 684**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Baserriko lanak ere egiteko prest. ☎ **631 155 950**
- Neska lan bila: etxeko lanak egin edo tabernan laguntzeko prest. Erreferentzia onak eta papelak legez ditut. ☎ **664 182 488**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Interneta edo orduka. Papelak legez. ☎ **671 139 176**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest, etxean nahiz ospitalean. Esperientziaduna. ☎ **660 511 781**
- Gizona edozein lan egiteko prest. ☎ **636 029 526**
- Neska gaztea garbiketara lanak egin edota umeak eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **648 603 029**
- Emakumea lanerako prest. Esperientzia okin eta garbiketara lanetan. ☎ **675 452 060**
- Neska gaztea garbiketara lanak egin edota umeak eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **627 626 052**
- Emakume euskalduna umeak zaintzeko prest. ☎ **617 637 133**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna, orduka, ospitalean... ☎ **602 371 443**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna, orduka, ospitalean... ☎ **634 781 954**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna, orduka, ospitalean... ☎ **618 134 615**
- Elgoibarko mutila, baso tasatzaile ofiziala, baso aholkularitza eskaintzen da. ☎ **607 885 609**

- Neska umeak eta nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **632 619 997**
- Magisteritzan Lizentziatutako neska LHko klase partikularak ematen ditu. ☎ **666 329 728**
- LHko eta euskarazko klaseak ematen ditut. Esperientzia daukat. ☎ **697 322 306**
- Ingeles klase partikularak ematen ditut. Adin eta maila guztiak. Azterketa ofizialetarako prestakuntza. Talde txikiak. ☎ **680 858 550**
- Mutila, lan bila. ☎ **688 812 845 / 943 257 671**
- Emakumea, lan bila: umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanak egiteko prest. ☎ **681 065 683**
- Ingeles klase partikularak ematen ditut etxetik. ☎ **943 744 062 / 680 319 002**
- Mutila nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. ☎ **686 077 316**
- Alemanierako klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle truke eta azterketen prestaketa EOI. ☎ **670 793 312**
- LH eta DBHko klase partikularak ematen dira. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Emakumea garbiketara egin edo nagusiak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. ☎ **699 609 190**
- Emakume langilea, konfiantzazkoa eta arduratsua umeak zaintzeko prest. Arratsalde. Erreferentzia onak. ☎ **626 330 003**
- Emakumea lan bila: umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. ☎ **646 821 678**

ESKAITZA

- Sukaldaria behar da Mendaroko taberna batean asteburuetan lan egiteko. ☎ **943 530 284**
- Donostiako enpresa batek teknikari saltzailea behar du. Curriculumala bidali: info@murplastik.es
- Asteburuetan ostalaritzan lan egiteko neska euskalduna behar da. Curriculumala bidali erretratuarekin, **174 posta kutxatilara**.
- Debako Kresala hoteleko harreraren lan egiteko pertsona behar da. Interesatuak bidali CVA ondorengo helbidera: deba@aisiahoteles.com

ETXEBIZITZAK

- Etxea alokairuan Elgoibarren. Bi logela, sukaldea, despentsa, egongela. Jantzita. Eguzkitsua eta igogailuarekin. ☎ **655 711 334**
- Etxea hartuko genuke alokairuan. Bikotea eta seme-alabak. Nomina daukagu. 3 logela eta berogailua ezinbestekoak. ☎ **634 718 510**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **600 621 605**
- Pisua salgai Elgoibarren. Hiru logela, egongela, komuna, sukaldea, ganbara. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. ☎ **688 658 183**
- Pisu txikia hartuko nuke alokairuan. Merkea. ☎ **679 237 611**
- Hiru logelatako pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **677 077 786**
- Emakume arduratsua pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **943 530 631 / 663 510 520**

GARAJEAK

- Garaje marraduna alokairuan Santa Ana kalean. ☎ **667 083 913**
- Garaje marraduna alokairuan Pedro Muguruza 11n. ☎ **606 707 915**
- Garaje itxia alokairuan, Jausoro plazan. Udaletxetik gertu. ☎ **672 422 237**
- Garajea alokairuan, Jausoro plazan. Ate automatikoarekin. ☎ **600 587 328**

BESTELAKOAK

- Umeak lotarako darabilen trapuzko pampina galdudut, Pedro Muguruza eta Lerun artean. Balio sentimental handikoa da. ☎ **636 045 792**
- Pianoa salgai. Yamaha Clavinova CLP 920. Berri berria. Prezioa adosteko. ☎ **605 771 093**



IREKI BIHOTZA
MINTZALAGIEN DENTZAK

IZENA EMATEKO:
Urriaren 15era arte
Elgoibarko Izarran, Udaleko Euskara Sailean,
Udal Euskaltegian edo AEKn

INFORMAZIOA:
Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte
Ubitarte, 4, behea
943 741 626
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com



• Zorionak, **Maialen**, zure hirugarren urtebetetzean. Danel txikiaren eta familiako gainerakoen partez, ondo pasa eta muxu asko.



• Zorionak, **Garazi** Dagoeneko urtetxo bat! Muxu potolo bat etxeko eta, bereziki, aitona-amonen partez.



• Zorionak, **Maddi** Asotelehenean 7 urtel! Horrek bai merezi duela ospatzea. Muxu handi bat maite zaitugun guztion partez.



• Zorionak, **Markel**, hirlaren 26an urtetxo bat egin zenuelako. Arreba Juneren eta gurasoen partez.



• Zorionak, **Nerea**, 10 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiakoen, eta, bereziki, Ainhoaren partez.



• Zorionak, **Eider**, etxeko guztien partez, gaur 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat.



• Zorionak, **June**. Las-ter 4 urte egingo dituzu! Muxu handi bat, gurasoen partez.



• Zorionak, **Joanel** Azkenik iritsi da hainbeste itxarondako eguna. Ondo pasa zure seigarren urtebetetze ospakizunean.




• Zorionak, **Iker**, urriaren 2an 5 urte egingo dituzulako. Etxeko eta, bereziki, Gariren partez.



• Zorionak, **Naroa**, asotelehenean 2 urte bete zenituelako. Muxu asko familiakoen eta zure lehengusina Malen sorginaren partez.



• Zorionak, bikote! Oso ondo pasa zuen ezkonta egunean, familiakoen eta lagunen partez.



• Zorionak biori! Manex, jada esku bete urtel! Bost belarri tirakada zuri, eta muxu handi bana.



• Zorionak, **Elene**, atzo 2 urte bete zenituelako. Muxu handi bat gurasoen, eta bereziki, Mariaren partez.



• Zorionak, **Xabier**, asteartean 5 urte bete zenituelako. Muxu asko gurasoen, eta bereziki, Irurenen partez.

OSPAKIZUNAK KINTOAK



Nork esango luke 40 urte? Ea bost urte barru ere primeran pasatzeko gogo bera dugun! Seguru baietz!

AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU.

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira
BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

29 zapatua

Feria

9:00 Azken zapatuko feria
Kalebarren plazan.

30 domeka

Kirola

10:00 Mendi irteera
Ikastolak antolatuta, Besaidera irteera.

5 barixakua

Erakusketa

18:30 Emilia Nogales
Margolari elgoibartarraren erakusketa, Kultur Etxean.
Hilaren 20ra arte egongo da ikusgai.

Dendak bizirik feria

19:00 Trikitilarien kalejira
19:00 Batukada
20:15 Dantza ikuskizuna
Biraka taldearekin, Kalegoen plazan.
23:00 Kontzertua
Zuhaitz Gurrutxagak kontzertua eskainiko du Vanpopel taldearekin Lekuederren.

SAN MIGEL JAIAK

IRAILAK 28, BARIKAKUA
19:00 Kanpai jotzea
21:00 Bertso afaria
Ziarda eta Narbaizarekin.
Ondoren Erromeria
Laja, Narbaiza eta Lutxurdiorekin.

IRAILAK 29, ZAPATUA
San Migel ezuna
11:00 Meza
Ondoren Bertsolariak
Ziarda eta Mañu.

13:00 Pilota partida
Ondoren Erromeria
Elustondo anai-arrebekin.
17:00 Artzain txakur txapelketa
Euskal Herriko arraza libreko finala.
22:30 Dantza
Borja Uzuriagaren omenez, Haritz dantza taldearen ekitaldia.
Ondoren Erromeria
Elustondo anai-arrebekin.

01:00 Bolo txapelketa
Elustondo anai-arrebekin.

IRAILAK 30, DOMEKA
11:30 Meza
Ondoren Trikitilariak
Baltzola anaiak.
12:00 Korrika igoera
17:00 Idi-demak
Ondoren Trikitilariak
Baltzola anaiak.



ERROSARIO KALEKO JAIAK

URRIAK 3, EGUAZTENA
13:00 Arna Birjinari lorak eskaintzea
17:00 Txokolate jana
Baltasar elkartearen atarian.

URRIAK 4, EGUENA
17:30 Amoren zezenak
20:00 Luntxa
Kultur Etxeko sotoan.

URRIAK 5, BARIKAKUA
17:30 Kiribilka

Errosario kalean.
19:00 Mauxitxa txarangaren kalejira
Buruhandiekin.
20:00 Igel-toka txapelketa
Jai Alai tabernaren kanpoaldean.
21:00 Afaria
Kultur Etxeko sotoan.

URRIAK 6, ZAPATUA
13:00 Pilota partida
Kalegoen plazan.

19:00 Errosarioa eta meza
Kalean hildakoen omenez.
20:00 Salbea

URRIAK 7, DOMEKA
11:00 Meza Nagusia
Ondoren, Errosario kaleko ezpata dantza
Haritz dantza taldekoekin eta txistulariekin.



ZWEA

«Pollo con ciruelas»

Ongarri zinekluba
28, barixakua: 22:15

«Profesor Lazhar»

Ongarri zinekluba
29, zapatua: 19:00/22:15
30, domeka: 19:00
1, astelehena: 21:30

OKINDEGIA

30 domeka FOTERO

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

28 Etxeberria
29 Fernandez
Goizez: Garitaond.

30 Fernandez
1 Yudego
2 Zabaleta
3 Barrenetxea
4 Ibañez

Gauetz

22:00 - 9:00

Etxeberria
Garitaonandia

Garitaonandia
Yudego
Etxeberria
Barrenetxea
Yudego

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

Larunbatean entsalada
lehiaketa eta
Bilboko Lasergunera irteera!
Arratsaldeaz Gaztelekua itxita.



Urriaren 1ean, astelehena,
«WII MARIO PARTY 9»
txapelketa Ludotekan!

dendak !Bi-zi-rik! stock feria /ELGOIBAR/URRIAK 4-5-6


TXANKAKUA
ELGOIBARKO MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEA

partaideak

- | | | |
|--|---|--|
|  irioko altzariak
sumoak
bulego produktuak
azkue argizki denda |  mg burdindegia
ongi iturgintza
itoamer iturgintza
ipintza margoak s.l.
muruamendiaraz |  garate jantzi denda
lete
sara jantzidenda
g & m jantzidenda
ziur
lepi modak
hezten |
|  burgoa somoa
arraindegia/pescaderia |  lenda harategia
patxi harategia
dori urdaildegia |  farma aprotz |
|  zeleta barazkiak |  casa astigarraga
iriako kirolak |  ortopedia izilar saraketa
olhez umien zapala denda
osero oinetakoak
lurrik oinetakoak |
|  pitxinbu |  kale loradenda |  lanbroa |
|  arantburu bitxidenda |  garbife estetika
aire estetika
arauri lundundegia
golara drogeria |  uzuri optika
kus optika |
|  leigor elektronikak
zazpi informatika | | |
|  sikandolo lanterria
ecenarro merzeria
karrikano | | |

antolatzailea



diru laguntzailea

ELISKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,
MERKATUTZA ETA TURISMOA SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
INOVACION, COMERCIO Y TURISMO

laguntzaileak



! dendak Bi-zi-rik ! stock feria EGITARAU PROGRAMA DE ACTIVIDADES

osteguna 4 jueves



19:00 - 22:00

PINTXO POTE

Elgoibarko Ostalarien Elkarte

ostirala 5 viernes



... 22:30

ELKARTEKO DENDAK
ZABALK EGONGO DIRA
22:30 ak ARTE

LOS COMERCIOS
DE LA ASOCIACION
ABIERTOS HASTA LAS 22:30

19:00 - 22:00

kaleetan zehar - recorrido por las calles
BATUKA

TRIKITILAREN KALEJIRA

Inazio Bereziartua

Musika Eskolako Trikitilariak

20:15 - 20:40

kalegoen plaza

BIRAKA DANTZA

"ARRATSALDE BAT ELGOIBARREN,
EROSKETAK EGITEN"
Iosu Mugika

23:00 - 24:15

Lekueder Parkea

VANPOPEL

Zuhaitz Gurrutxaga & Co.

zapata 6 sabado



10:30 - 14:30

Lekueder Parkea

STOCK FERIA

[1400 - 600 € ZOZKETA]

19:00 a 20:00

PINTXO POTE

Elgoibarko Ostalarien Elkarte



23:00

mazta parkea

DJ ELGOIBARTARRA



NAFARROA! arragoa!

nahiaren eta ezinaren borroka-toki ekaitzez betea

urriak 3, eguaztena

Hitzaldia: Nafarroaren konkista, 1512-1530

Joseba Asiron

19:00 Kultur Etxean

urriak 10, eguaztena

Hitzaldia: Euskara Nafarroan

Kike Diez de Ultzurrun

19:00 Kultur Etxean

urriak 18, eguena

GARTXOT filma Asisko Urmenetarekin

21:30 Herriko Antzokian

urriak 20, zapatua

Iñaki Perurenaren etxera egunpasa;

gauean, bertso-kantu afari nafarra Gaztetxean

info+ eta izen-ematea: Elgoibarko Izarran

azaroak 1-4

Mendi-ibilaldia Orreagatik Belaguara

info+ eta izen-ematea: Morkaikon eta Elgoibarko Izarran

Antolatzaileak:



EUSKARA
elgoibar

